

18.000 KUKU!

"Kukuka edo gorde gordeka" jolasean ibiltzen ginanekoa gogoratzan zait. "Bat, bi, iru, lau... kuku!", otsegin ohi genduen esan behar ziren zenbakiak bukatu ondoren.

Estaduek bere eskolakoak maixuei aginduz dien iterokoak oritarazi dit hori. Opa diegu sari eder hori eskolako maixuei. Baina baita ikastetxe eta ikastolako irakasle eta andereñoeri ere. Ikastolakoetxi batipat. Gure inguruan jendea gutxiagokin ohitua dago baino.

"Gorde gordeka"ko jolasean ere, ordea, zenbakiak kontatu eta "kuku" oihukatzea da errazan. Gero gorde diren lagunak bilatu eta aurkitu behar dira.

"Kuku" jo digute guri ere. Denoi, ordea, ikastolako guraso, arduradun, irakasle eta andereñoeri. Orain ikusiko da zenbateraino maite dugun ikastola. Bihotzaren erdian bait dago diruzorria ere. Eta emen ikastolaz zerikusia duten guztien diruzorria dago lehenez gainera zimirutu beharrean.

Batekik ez du ikastola bere irakasleii horrenbeste ordaintzeko dirurik. Beraz, Euskal maiteminduek bakarrik uko egin dezaiokie diru mordoxxa honen zirikaldiari. Laster aspertuko dira aho-axalean bakarrik iraultza hitza darabilenteak. Bestetik, bezir, gurasoei eta ikastolaz arduratu, irakasleen saria 18.000 pezetaraino ahalik eta gehien urreztatzea eskatuko die. Horri be-
roarena kenduz, jakina.

Baina hori gutxia umei ordinarazteak haurrak urretza dakar eta gelditzen direnazt zama astutzea. Zenbaitetik, edo ikastola hainbeste maite ez delako edo horrenbeste diru ez daukako, atera egingo bait luke bere aurr.

Beraz, diru iturriak aurkitu eta sortu behar dira. Agian, Gipuzkoako erri batean egin dutena egitea ez litzake hain bide aldrebesa Euskal Errirako. Leku bat jarri dute tripa-festarako. Jaten eta edaten da Euskal Erririan janari eta edari ederrik. Honen antzeko dirubideak sortu beharko lirake. "Diru-bekak" ere aurkitu beharko lirake. Emengo diru etxe, Aurrezki Kutxa, Udal-
leixea, Ahaldundegi, lantegi eta abarrek ere ohitu ez bezala la-
gundu beharko lukete.

Besteak beste, diru-poltsarako ere kaltegarri diren zatiketak izkitarazi beharko genituzke. Erlijio arazoak, izkuntza arazoak eta eziera arazoak zaitzen gaitu batipat. Denok ere gauza askotan eman beharko genituzke amore. Umekak urretzak, gai berdinerako izkuntza arazoagatik bakarrik liburua ugaltzeak, asereagatik zerbitzu-laguntzak gehitzeak eta abarrek asko erasaten dio lehenez gainera gure diru-poltxa xumurrari.

Legearan eta diruaren zailtasunak aski ez direla, arriksuan daukate gure ikastola denon itxikeriak, zenbaiten arrikeriak, zenbaiten gezurrak eta ardiriaruzko otsoen etsaikeriak.

Beharrezkoak ditu Euskal Erriak ikastolak. Denek ahalaginek eta bihotz zabalak salba ditzake. Elkar gaitzen eta zentza.

Amilcar Cabral hil dute

"Afrikaren Che Guevara hil du- te" idatzi dute Bretainia Nagusiko kasetik Urtarrilaren 23an. Amilcar Cabral jaun deñ 20an Conakry-n erhana, entzute handiko gizona bai- tzen Ginean eta Gineatik at.

Portugalen menpean dauden Gi- ea eta Cabo Verde lurraldeek, «Guinea-Bissau» ere deituak, 36.125 km² dituzte (Euskal Herria baino handixeago, beraz, zabala-
re); eta 600.000 biztanle (alegia, jendaketa alderdi honetatik Euskal Herria baino txikiago). Jenda-
keta hori ez da batere plugu be-

rekoa: etnologicaliek hogeita hamar bat etnia aurkitu omen dituzte Gu-inea-Bissau delakoaren barruan.

Amilcar Cabral, halere, horren herri txiki batetako seme eta ain- tizndari izanagatik, ezaguna zen bazterretan; eta Ginea-rentzako pro-
posatzen zuen politika bidea arret-
az eta begirunez aztertzen zuten afrikar buruzagiek. Gure bertso-
larren eta herri xehearen hitzaz esa-
teko Cabralek bazuen «gradua», ba-
zuen goratasuna edo «kategoria».

Lisboako Unibertsidadean ikasle izana, Cabralek P.A.I.G.C. abertze alderdia sortu zuen, honen helbu-
rutzat «Guinea-Bissau» horren as-
katasuna jarria. Abertzaletasunak, horrela, anti-kolonialismoa eraman zuen; eta Portugalen kontra ikusil-
tan altxatzeraino ere bai. Baina, axaleko ituzte bezalako eta portu-
galdarek berek orain aitortzen du-
tenez, Cabral ez zen berez anti portuges, gineatar abertzale baiz-
ki.

Lisboako bere eskolakide batzuek bide berbera hartu dute beste ko-
loniatan; Mozambiken, esate batak-
to, Eduardo Mondlane eta Dos Santos-ek «Frelimo» delakoa sortu zuten (gaur ikuslitan ere portugez aparatoreen kontra altxatu); eta Angolan Neto-k M.P.L.A. delakoa (gaur ikuslitan ere Lisboaen agin-
tearen kontra altxatu).

Herialde haren eskuailerik han-
diena kontrolatzen du gaur Cabra-
len abertzale mugimundua; bi he-
ren gutxi gorabehera P.A.I.G.C.-aren eskuetan daude. Portugaliek, beraz, interesus nabarmena du P.A.I.G.C. al-
derdiaresegitiko; eta Cabralen he-
riotzaren atzean portugez kolonia-
listak daudela ezin daiteke zalan-
tzen jar.

Lanak izango dira, ordea, hori frogatzeko. Cabralen odola isura-
razi duena, Inocencio Kani, afrika-
ra da, eta PAIGCko burukide gai-
nera: itsas-gerrilako buruzagi bat ageri denez. Eta Seku Ture-k be-
rak, bi egunez nazio-hilondoa agin-
tzean, Cabralen heriotza infiltra-
tuen ekintza izan dela aitortu du.
Portugalek, beraz, PAIGC barmeko pertsonaz baliatuz orhan du Cabral; eta bide beretik azaldu du gertakaria hildakoreen ania den Luis Cabralek. Honen esandakoa hitzez hitz aldatzea balio du: «Ene ania ez da aski erno ibili; zeren-
eta saldukeria honen egile nagusi-
ak portugez Armadan ibiltako jendea baita. Portugalek deskortee gisa bidali du talde bat Conakry-ra, eta han PAIGC-aren aldeko agere-
razi. Ene ania orduan besterik gabe eta bihozkadaz abertzale mu-
gimenduan onartu ditu».

Leopold Senghor-ek, Senegalgo Lehendakari ezaguna, bide berbe-
retik azaldu du gertaera: «vous devinez d'où vient le geste: il est signé du Portugal», esan du argi eta garbi. Eta «les réactionnaires portugais» aipatu ditu oraino ere xehegiago. Hots, jakina denez, Senghor ez da afrikar «ultra» horietako bat! Ez hori bakarrik: urte ba-
zutuz urte gaur egon da Cabrali bu-
ruz, hau Senghor baino aisa ezker-
tarrago zelako; eta portugaldar Ar-
mada mugatik at atxikitzen ere, behin ere ez du onartu PAIGC-aren maki-
-taldeek babesa Senegalen izatea. Senghor-en esanak, horrela, bala handiago du Lisboa gobernuaren zinkinkeria sumateko.

Caetano-ren ministroak, ordea, «ezer ez dakiela» esan du; are gehiago ere bai: «oso kezkatuta daudela», politizko hilkitzaren bide horiek «ez baitira bide egokiak». Eta hau erantsi du: «Laster aurkituko litzake hiltzailea herri zibil-
lizatu batetan. Baina Seku Ture-ren herrian nekez argituko da arazo hau... Cabral hiltzetaz gain, hor-
rela, Seku Ture lardazkatzeko oka-
sioa baliatu du!» «Leinuen arteko gorabehera» izan daitela bota dute Lisboa gobernuak; edo, be-
barbada, «URSS-en eta Txinaren ze-
latariren arteko iskanbilaren bat». Hil ondoren, pozolana barreiatu. Gaur politika-hilketat horrela bur-
tzen dira: «garbiki». Borggla-ren pozoinaketa nabarrenek kito dira. Ben Barka lekuko.

Salazarismoaren kondaira luse-
giak, ordea, gorririk darduka es-
kuak aspaldidant. 1965ean Delgado Jenerala eta honen Sekretaria Espa-
niatik lurraldeetan hilak; eta 1969ko Otsallean, Frelimo-ko Lehendakaria zen Mondlane (Cabralen adiskidea, beraz) Dar-es-Salaam-en



Amilcar Cabral

korreozko liburu-bonba batek hila. Eta abar. Norik sinetsiko ditu Lisboaren esanak?

"The Observer"-ek berehala idatzi du: «the parallels between the assassination of Cabral and Mondlane are important, as are the effects» (inportanteak, direla bai Cabralen eta Mondlane-ren hilkin-
tzen arteko antzak, bai ondorioak). Laster jakingo da xehetasun gehiago. Gaur, esate baterako (beti David Martin-ek «The Observer»-en idatzi berria duena segituz) «gauza frogatua da» Mondlane-ren herio-
tza prestatu zutenak Portugalek Frelimo-n infiltratutako ajentek zira-
rela, aspaldi hartan Portugalen zer-
bitzutan lanean arit.

Eta halako batez Cabralen arzoa agertuko da argitara. Nori axola, orduan, Lisboako agintea Iberiko eskualdeetara biltzea delarik?

Seku Ture-ren tesia, horrela (hil-
keta hau infiltratuen bidez obratua izan dela) gero eta sinagarriago agertzen da. Atzean portugaldar go-
bernu a duena, jakina; baina hiltzaileak berak gineatar troidoreak dira. Arzoa horrela ez da imperialisten joko gisa agertzen, zapalduen arteko saltsa gisa baizik.

Bere bertute eta prestutasun gaitzetatik, Amilcar Cabral ohore bat izan da bai beltzentzako bai zurietzako ere, idatzi zuen «The Guardian»-ek Urtarrilaren 23an bertan. Baina kolonialismoa eta imperialismoa galanki fultzen dira ohore, bertute eta prestutasun horie-
z. Cabralek Ben Barkaren eta Cheren bidea hautatu zuen; eta lurpean hobe.

Gaur arte Mobutu-k Angolako gerrileroak Kongoko mugatik uxatu ditu, eta Senghor-ek Gineakoak Senegal-goetatik. «Raison d'Etat», irakurle. Agian orain (aspaldiko par-
te!) Portugalen zerbitzuko mesede hits horiek bukatuko omen dira; eta Frelimo-a, M.P.L.A.-a eta Cabralen P.A.I.G.C.-a lasaia gogor ibiliko mugetan.

Nolanahi ere guk euskaldunok, geure lerro apa haueetatik, goraz-
tzen titiki hau helarazi nahi ge-
nitokie Amilcar Cabral aniari, ha-
rengan abertzale eta gizonean aldeko burrukalari aparta agurtzen gugularik.

LARRRESORO



Zuzendaria: MIREN JONE AZURZA

ARISTEGUIA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.^a Burlada-Pamplona).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:	
Barruan	300 pezeta
Korroo batasunetako erlatetan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldean	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

Irarkola: «Gráficas Navasal» A. Adoain, 1 IRUIREA D. L.: NA. 80-1963

EGUN EGUNEKOA

BERDIN BAINAN
BESTELA

Eisenhower-en oroitzapen-liburuan irakurria: 1954ean egiteko ziren Vietnam-en hautespenak edo elezioenak. Orduan amerikanoek jakin zuten ez zutela amerikano-
zuek irabaziko, eta hautespen gabe, gerla berriro hasi zuten, amerikanoak frantsesek utzitako lekuan.

Orain bakea etorri da azkenean, eta hautespenak egingo dira. Burua makurtzeko, hil eta zaurituen gopuru espantagarri.

Gure aldiaren grudela! Giza-
zakiaren kaskagorra!

Daniel Ibargoiti

DEI ARRASATERAI!

(R. Kanblong, adiskideari)

1.—Badirudi heldu dela garaia. Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herria elkartze bideetan ezarri ditzakeen anitz «ardatz» asmatu eta sortu da, orainaldian, gogo eta asmoetan.

2.—Legeak debekatu egiten zuen, oraino, kapitalak atzerriera eramane. Hemengo enpresa nahiz bankuek ez zuenaten, esaterako, Frantzia, hango lantegietan, dirua eta kapitala sartzetarik.

«Lacq-etik. Bilboaraino doan ardatza», «Baionatik, Donostian zehar, Tolosaraingoa doan ardatza», «Akitanikoa eskualde ekonomiko Europa Elkartuaren baitan», eta abar.

Lege hori aldatzea dator. Asko dakien eta dezaken jaun baten aholkari jaso du albisteak. «Banco Guipuzcoano»-ko Buruzagi den Agirre Gonzalok, bere hiltzaldi ospetsuan garbiri aldarrikatu zuen berria: aurki lantegiek atzerrian, beste erresumetako lantegietan, kapitalak inbertitzea eskubidea eta aldatzea izango dute. Eta, hain zuzen, Agirre Gonzalok, albiste eman ondoren, komentario labur eta pentsagarri bat jarri zuen: «egokiera hau garrantzi handikoa izan daiteke gure eskualde honetako ekonomiaren zentza». Ez zuen gehiagorik esan. Halere, guk honela ulertu nahi izan dugu: «hau da egokiera Bilbao-Lacq, Baiona-Tolosa, Akitanikoa eskualdea eta beste anitz egitasmo, errealitate bihurtzen eta gauzatzen hasteko». Badakit nere ulerkera hau txit optimista dela, agian, Agirre Gonzalo jaunak adierazi nahi izan zuenaren baitara. Horrek ez du garrantzirik, alde batetik. Halere «Banco Guipuzcoano»-ko Buruzagiaren barneko pentsakera hori baitik, guzki kontuan hartzekoa izango litzake, biltzakeria eta aldaera biza adierazitako bait luke.

Hori den gauza egiten hasteko ordua heldu dela, badirudi, halabaiña.

Dena delarik, hel diziogun arazoari, ezen hau da hemen arzoa: gureguren Ipar Herriak has gaitzeko inbersioak egiten eta Ipar Herriaren industrializetari laguntzen. Baina, nor da, norbait baldin bada, Hego Herriatik Iparrera, Kapitalka, teknika eta batik batik industrializetaz eskatzen duen buruzagitza, hementik hara eman nahi duena eta dezakeena?

ekintza honi hel eta eutsi dizajoke- en indarra; Ipar Herria egoki industrializetaz eskatzen duen ekintza buru dezakeen kementa eta ahalme-
na.

Egia da, gure gizartean sumatzen dugula halako beste esantze berri bat. Badirudi, erdi mailan dagoen euskal burgesiaren baitan, hots, zenbait industrialari eta finantzelari-
ren baitan, regionalismoaren erna berritze baten seinaleak nabari dira. Ez dugu, beraz, ukatuko, alde horretatik, hau da, zenbait enpresa kapitalistaren aldetik, etor daitekeela, Iparrean lantegiak erai-
kitzen hasteko jokalabidea. Banketxe industrial bat edo besteren aldetik ere itxaro daiteke, agian, Iparrean kapitalak inbertitzen hasteko estrategia. Baina, lau edo bost urte igaroko dira bizikitarte...

Arrasaten dugu, beraz, itxaropidea. Arrasate diogunean, euskal kopetarismoa diogu, noski. Eta are zehatzago mintzatzeko, Lankiddeen Auzo Aurrezki Ontzia aipatu nahi dugu; gure itxaropideaen oin-
berria bera bait da. Aurrezki honi nabe badu gauregun beregan, Iparra egoki eta taxuz industrializetaz eskatzen duen produkzio indar oro: badu kapitala, badu teknika, badu industrializetaren esperientzia, eta, nagusiki, badu Euskal Herriaren hazkundeak eta surrerabideak non-
dik jo behar duen kontzientzia. Hau guzkia ez da ameskeria edo nahikari hutsala. Hemen, gure artean, gizaki ezagun batzuen baitan, dago aipatu dugun indar guzti hori. Horregatik ausartu gara, Dei Arrasate-
rari jaulkitzen.

Badakit Iparreko herrikideek dela eta mila dei egin gabe ez dutela utziko. Nere abotsa, halanerekin batera, deika litzateke baizik, ez dut egin, artikulu honen bidez.

Gurutx Ansoa

Traba eta eragozpen anitz egon da, eta oraindik dago, Hegoaldeko produkzio-indarra Iparrera zuzentzeko. Batik bat, eragozpen larri bat bazen oraino, Gipuzkoatik nahiz Bizkaitik kapitalak Iparraldera eramateko, eta Lapurdi, Xubero eta Baxenatarreko lurretan lantegi berri eta egokiak eraikitzeko.

Badirudi, halabaiña, heldu dela garaia Hegoaldeko Indar eta ahalte-
tiki zerbat Iparrera zuzendu eta eramateko. Zer dela-ta?

3.—Dei Arrasaterai! Izenburu honez aski garbiri agertu dugu, Arrasaten, euskal kooperatiba mugimendua-
ren hiriburuan, ikusten dugula